

aUZoz auzo • aUZoz auzo • aUZoz auzo •

herrera-bidebieta

Mozkor frentekideak pilota jokoan

hilaren 8an, hasi zen Mozkor Frentekideek antolatutako Paleta Gomazko VIII. Txapelketa.

Apirilaren 10era bitartean iraungo du eta larunbatero Herrerako pilotalekuan goizeko 9etan hasita hiru partidu jokatu dira. Aurten parte hartuko duten jokalaria berriak hauexek dira: Txirriskla, Bla-Bla, Cartujo eta Pantxo.

Txapelketa honetan parte hartzeko pertsona bakoitzak goitizenez bat-taiatu behar du bere burua eta bere kirol maila erakutsi beharko du antolatzaileek jakin dezaten zein mailatan sailkatu jokalaria bakoitza. Mozkor Frentekideek duela bi urte erabaki zuten Pelota Gomazko Txapelketa honen bi maila merezi zituela, lehen mailan jokalaria trebetuenak aritzen dira



Argazkia: Ximon

larunbatero jokatu dira partiduak apirilera bitartean. Saio bakoitzean hiru partidu ikusi ahal izango ditugu.

eta bigarrenen berriz «motelagoak».

Beste txapelketetan gertatzen den bezala, hemen ere bikote faboritok alde aurretik ematen dituzte ezagutzera. Lehen mailan Bla-Bla eta Kani-tok sorpresa ugari ekar ditzakete, bestalde, Toci-

nete eta Mutrikuk behin baino gehiagotan erakutsi dute bere trebezia. Sal-txas- Katxini bikotea ere agertzen da faborito bezala.

Mozkor Frentekideen nondik norakoak

1987ko ekainean,

Herrerako lagun talde ospetsuenetako batek asteburuetan kirol apur bat egitea erabaki zuen edateari utzi gabe baina gibelari atsedean bat ematearren. Honela sortu zen Paleta Goma Pilota Txapelketa. Antolaketa «Sal-txas Zaharra»ren eskutan utzi zen «Kanito»ren laguntzaz.


Berehala bildu ziren partaideak, materialaren jabe egin ziren eta aurreneko denboraldiaren egutegia osatu zuten. Baina arazo handi batekin egin zuten topo orduan, ez zegoen inguruko pilotalekuan pilotan aritzeko ordu librerik. «Edale amorratu» hauek ez zuten etsi eta José María Ricoren pilotaleku partikularrean egin zuten Mozkor Frentekideen Lehen Txapelketa.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 321267)

Logotipo eta guzti

Hainbat esanahi eman nahi izan zaizkio txapelketari logotipo honetan: behetik hasita, fondo urdinez margoturik, Herrerako zubia ikus daiteke. Zubiaren gainean berriz Altzako esku-dua, arbola. Mozkor baten irudia ere badu logotipoak farola bat eusten.

Gainen, ikurriña dago eskubira eta Herrera auzoko sinbolo eta koloreak ezkerrean: Herrerako hori eta berde koloreak eta Batasuna Elkarteko marroi eta horia.




intxaurrondo

Osagarri ala menpeko?

Poltsiko antzerki zikloa, Kultur Etxeak antolatuta, urriaren 13an hasi zen. Ostiraleko saioa gaueko 10.30etan hasiko da Talai tabernan, Malo Malísimo magoaren «*Magia*» lanarekin. Larunbatean, amaiera gisa, Louviers-en «*Rizando las ondas*» lana izango dugu ikusgai, arratsaldeko 8etan Extremadurako zentruan.

Argazkia: Roxali Fernandez



Duela urte gutxi, dena zentratzen zen Intxaurrondo Zaharrean, parkea, Kultur Etxea eta eskolak kontutan hartuz.

Intxaurrondo Berri ziklo kulturala hasiko da urriaren 19an. Egun horretan, Sebastopoleko Titiriteroek «*Desechos Humanos*» lana aurkeztuko dute kalean; 6etan Felix Gabilondo kirol pistan. Urriaren 20an, Katakarak Trup Malabaristak ibiliko dira inguruetan zehar. Amaitzeko, 21ean, Iruña Pequeño Teatroren «*Historia de una muñeca abandonada*», 19.30etan F. Gabilondo pistan.

gure auzoa egun banatua dagoela nabarmena da. Garai batean bateratua zegoen auzo hartan, orain hiru zati bereiz daitezke itxura, biztanleria eta beste hainbat ezaugarriren arabera.

Betidanik egon den Intxaurrondo Zaharra daukagu alde batetik. Bertan, etxe zaharrenak, biztanlego zaharrena eta euskaldunena daukagu.

Ondoren, Ipar Intxaurrondoko zona eraikitzen eta mugitzen hasi zen. Garai bateko baserriak desgertu ziren, egungo etxeei lekua utziz. Komertzio asko daude alde honetan eta egin diren parkeekin, behar ugari asetu dira.

Azkenik, alderik berriena dago: Hego Intxaurrondo. Momentu honetan hazten ari da arlo guztie-

tan: etxeak, komertzioak eta ekipamenduak.

Alde berriak oraindik ekipamendu aldetik gabeziak dituzten arren, etorkizunerako zona nagusi izango direla aurrakusten da, alde zaharra atzean utziz. Udalaren eta beste zenbait erakunderen interesa ere alde honetan oinarritzen da, bereziki zona hau erdialdearekin lotzeko agertzen duten nahian. Ondorioz, hainbat auzokideren ustez, «*alde zaharra berriaren menpeko bihurtzen da, bere oinarritzko behar asko asetu gabe*».

Biztanlegoaren aldetik ere desberdintasun nabarmenak ageri dira. Alde berrira, beste auzoetako jende ugari etorri da eta horren arrazoi nagusia babes ofizialeko etxe ugartasunean aurki dezakegu.

NAGORE IRASTORZA (TFNOA.: 285749)

INTXAUSTI DIETETIKA

jaki osasuntsu eta naturalak



Jose Elozegi, 120 Tfnoa.: 39 89 84

Valares

Altzariak • Dekorazioa
Liburudenda • Opariak

Larratxo Pasealekua, 14 behea
Tfnoa.: 39 14 11

jaupe

LUIS MARI JAUREGUI

liburudenda/Paperdenda

Larratxo Pasealekua,
39/Tfnoa.: 39 37 78

Auzoan bertan duzu aukera!!



Euskadi Etorbidea, 5 - Pral. C
20110 PASAIA - TRINTXERPE
Zumardi Ibiltokia, 14
(Bidebieta - 1)
20016 DONOSTIA
Telefonoa: 399877

IMANOL

HARATEGIA URDAITEGIA
GURE BASERRIETAKO HARAGIA

BERTSOLARI TXIRRITA, 14 • TFNOA.: 39 29 40
ALTZA DONOSTIA

ELEKTRO BAZAR

ELEKTRIZITATEA

Serapio Mugika, 8
Tfnoa.: 401060 • Bidebieta

herrerak-bidebieta

Axisklo atseden taldea martxan


herrerako Axisklo Atseden Taldeak jadanik martxan jarri du negu egitaraua, eta hori dela eta urriaren 8an, ateak irekiko dizkio Herrerako gazte talde ugari.

Aurtengo egitarauak ekintza eta irteera ugari eskaintzen dizkie Herrerako 10-14 urte bitarteko haurrei: jokuak, aisi irteerak, haurrentzako jaialdiak, ihauteri konparsen antolaketa, Txuri-Urdinerako irteerak, ur jokuak, e.a.

Ekintza bereziak

Aipatutakoaz gain Axisklok urtean zehar ekintza bereziak antolatuko ditu, horien artean, udalekuak, Herrerako txoko guztiak ezagutzea edota eskulanak egiteko praktika bereziak.

Axisklo Atseden Taldeak Herrera eta ingurune-tako gazteei larunbat



Axiskloko arduradunek gazteen presentzia berreskuratu nahin dute. Joan den urtean zehar ekintza ugari egin zituzten arren haur eta gazte gutxi inguratzen direla bere taldera diote

arratsaldeak era didaktiko batean pasatzeko aukera ematen die. Larunbatero Itzala lokalean elkartzen dira arratsaldeko 16.00etatik-18.00etara edo eta asteartean 20.30etatik 22etara.

Begirale titulodunak

Axisklo Taldea Arantxa, Marian, Alitxu, Saioa, Santi, Iñaki, Josean eta Kakalok osatzen dute.

Zortziek Atseden Taldeko Begirale titulua atera behar izan dute haur edo gazteekin urtean zehar lan egin ahal izateko.

Axisklok, matrikula merkea jarri du, hain zuzen Axisklon parte hartzeagatik urteko 1.500 pezeta ordaindu beharko da.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)

Gipuzkoako Hies-aren

aurkako elkartea jeringila garbiak banatzen eta zikinak jasotzen dabil egun hauetan Donostiako auzoetan zehar.

Joan den astelehenean Bidebietetan ibili ziren eta gaur, hilak 7, berriz ere egun osoz arituko dira drogazaleekin jeringilak aldatzen.

1994-95 Ikastaro Egitaraua Zubeldia Ikastegiak

Zumardi Ibiltokia, 14 (Bidebieta - 1)
20016 DONOSTIA

Euskadi Etorbidea, 5 - Pral. C
20110 PASAIA - TRINTXERPE

IKASTAROAK

- 1- Hizkuntzak: euskara, ingelesa, frantsesa
- 2- Informatika
- 3- Mekanografia ordenagailuz
- 4- Kontabilitate eta merkatal gestio mekanizatua
- 5- Hardware-an teknikoak
- 6- Marketing eta salmentak
- 7- Laboral eta zerga gestioa Pyme-etan
- 8- Laguntza klaseak: OHO, ertaina, eta unibertsitatea
- 9- 25 urte baino gehiagokoentzat unibertsitateko sarrera
- 10- Klinika laguntzailea, geriatría laguntzailea
- 11- Elikagai manipulatzailerak
- 12- Dietetika eta nutrizioa



Telefonoa: 399887

ARIZMENDI

Automobilien engrase eta garbiketa

Ikusmen-Eder etxe z/g
(Altzako bidea)
Tfnoa.: 392019 HERRERA

intxaurrondo

Komertzio lokal berriak salgai


hemendik gutxira, hilabete inguru, Ipar Intxaurrondoko zona berrian 27 komertzio lokal jarriko dira salgai. Lokalen neurriak 40 metro karratutik 70era artekoak izango dira eta erosketa prezioak metro karratuko 85.000 eta 125.000 pezeta bitartean egongo dira.

Lokalak lau urtetan zehar alokatuko dira eta epe hau gaintitzean, alokatzaileek erosteko aukera izango dute.

Printzipioz, edozeinek dauka eskuratzeko posibilitatea, baina zenbait gauza kontutan izango dira. Esaterako, komertzio mota edo esperientzia. Bestalde, udalaren baimeak eta kreditoen abalak ezinbestekoak izango dira.

Babes ofizialeko garajeak

Bestalde, duela hilabete batzuk, babes ofizialeko



Argazkia: Ximon

etxeetako biztanleek garaje beharra aldarrikatu zuten. Garajeak eskatu zituztenak 185 izan ziren, baina momentu honetan erostera azaldu direnak 51 izan dira soilik. Beraz, hainbeste buruhauste sorrarazi dituzten garajeak soberan daude momentu honetan. Honen aurrean, erosteko aukera gaintzeko auzokideei

zabaltzea proposatzen da.

NAGORE IRASTORZA (TFNOA.: 285749)

Urriaren 7tik 22ra bitartean, pintura erakusketa bat izango da ikusgai Larrotxene Kultur Etxean. *«Joan etorriko bidaiak»* titulupean, hainbat artistek beren lanak aurkeztuko dituzte. Guztiak Arte Ederretako fakultatekoak dira. Sarrera librea

da, astelehenetik ostiralera 18.00etatik 20.00etara.


Monseko pista estaltzeko proiektua onartu da jadanik. Lana *«Cubiertas y MZOV»* enpresaren esku geratu da, 80 milioitako aurrekontuarekin. Lanak edozein momentuan hasiko dira eta 8 hilabeteko epearen barne bukatuta egon beharko dute.

Hainbeste biztanle duen auzoko zona honetan komertzio gutxi dago. Huts hori betetzeaz gain, hainbat jenderentzat aukera ederra izango da negozio bat jartzeko garaian.

azurki

Altzariak • Dekorazioa

Sekundino Esnaola, 9 Tfnoa.: 27 32 50 - 27 94 50



ULI ALDE Euskaltegia

-ikas ezazu euskara grosen
- HABEK homologatua

Jose Maria Soroa, 10 • Tfnoa.: 28 13 69



EIZA Excvas.

- APALATEGI METALIKOAK, BEIRAZKOAK ETA EGUREZKOAK
- BULEGO ALTZARIAK
- ERAKUSLEHIOAK
- MANIKIAK, OSAGAIAK ETABAR

Jose Maria Soroa 11-13 Tfnoa.: 293406

Chetas

TAILA HANDIETAKO MODA

Kolon Pasealekua, 23 Tfnoa.: 29 27 20